

Zakur emea

Itziar Zigaren *Devenir perra* liburuaren aurkezpenan izan nintzen duela hainbat aste. Ohikoan nahiko zurrunik eta hutsalak izaten dira halako ekitaldiak: hitzak, hitzak, hitzak. Eroso joan nintzen, ilusio handiegirik gabe, zibilez jantzita; ez nekien, artean, zakur emeen eta feministen arteko biltzar batera nindoanik. Kabareteko makilaiaz apainduta agertu zen Itziar, gasazko alkondara beltz garde-na, bularretako beltza, gona motz estua, sarezko media saretuak, takoiak, luma gorritzko boa bat... supermerkatuan erositako arropaz jantzita zirudien, edo ikastolako antzezlan baterako putaz mozorrotuta. Itxura deigarria, bai: hiru egunez festan egon eta gero han plantatu izan balute bezala, tartean bortxaketa bat edota hartz baten erasoaldia pairatu eta gero.

Mikelazuloko lagunei barkamena eskatuz agertu zen, gintonica eskuan, bertan ez delako alkoholik saltzen; protokolo guztiak hautsi zituen hasi orduko, eta gero euskaraz ez aritzeagatik ere barkamena eskatu zuen: “amorrua ematen dit, baina euskaraz ez dakit, menperatzaileen hizkuntza hau baino”.

Aitortu dezadan Ziga ezagutu aurretik nahikotxo estimutan nuela, hainbat motiborengatik: gaur egun Bartzelonan bizi den arren, nire herriko Beraun auzoan sortua da. Berak esango lukeen bezala “hodei toxiko eta fluor koloreko zelaien artean, bloke grisez inguratuta”, nire begietara magnanimoa den deskribapena. Beraun kanpotik ikusten genuenontzat, bertan sortutakoak jaioztatik kondenuatuak zeuden: txiro, baztertu, galdu, eta hondoratu izatera. Herriko mugez haratagoko herrixka zen, inondik ere, Francok herriei erantsitako auzo gehientsuenen modura. Areago, Itziar Zigaren



etxean bezala, ama-alabak ostikoka gobernatu nahi zituen aita bat egokituta. Beraz, Zigak bere burua berrasmatu ahal izanak liluratu egiten nau.

Mahai gainean eseri zen bere izter mamitsuak agerian utzita. Zakur eme hitza (*perras*) dozena bat bider erabili zuen lehen minutuan, eta hain justu zakur eme horietako bat aurkeztu zigun, Bartzelonatik etorria bera ere. Plastikoa bilduta agertu zen, kosmetikoa eta titiak kiloka: Priscilla filmetik ateratakoa zirudien. Baina benetako puta zen, ofiziozkoa, ez fikziozkoa. Vero, halaxe izena zuen, gizonen zerbitzura bero eta harro agertu zen neska transexual handi eta mehar hark.

Feminismoaren ikuspegi bitxia defendatu zuen ondorengo hitzaldian, iraultzailea (baina bateratzailea) izango dena: *Putatasuna*. Aspaldiko feminismo sexurik gabeko hartatik, gozamenerako jauzia egingo duena, feminismo gozagarria, nolabait. Salatu zuen feminista izatean emakumetasuna galdu nahi izan zutela borrokalari askok, eta horretarako gizondu egin zirela, “XXL alkondarak jantzita”. Horren orde, emakumetasuna sexutik sentitu eta defendatzeko apostua aldarrikatu zuen berak. Oso adibide harrigarriak jarri zituen, Valentziako Unibertsitatean masturbazio publiko antolatuta zutenekoa, adibidez. Zakurren kale hartan bildutako ok aho bete hortz geratu ginen kontakizunarekin, eta, batez ere, feminismo tradizioaletik etorritakoek: “hau dena asimilatzeke denboratxo bat beharko dugu”, esan zuen horietako batek.

Ziga Mikelazulon lehorreratu zenekoa ez dugu berehalakoan ahaztuko.

Baina oraindik zalan-tzan nabil: lehorreratutakoa zakur emea ala behorra al da? ■

Ziga ezagutu aurretik nahikotxo estimutan nuen,
hainbat motiborengatik: gaur egun Bartzelonan bizi
den arren, nire herriko Beraun auzoan sortua da.
Berak esango lukeen bezala ‘hodei toxiko eta fluor
koloreko zelaien artean, bloke grisez inguratuta’